

KUDEAKETA INTEGRATURAKO POLITIKA

GB Korporazioko enpresok, markok eta zerbitzuok pertsonen jateko duten premia segurtasunez eta modu osasungarrian estaltzea dugu lehenengo helburu, eta, horretarako, zentzumenezko esperientzia atsegina sortzen dugu. Funtsezko jarduera hori gero eta zorrotzagoa eta zailagoa den testuinguruan garatzen da. Batez ere, gero eta eskakizun gehiagoako baldintza hauek betetzeko: baliabide naturalak zaintzea eta babestea, dibertsitatea errespetatzea eta bidezkoagoa, orekatuagoa, baketsuagoa eta tolerantetagoa den gizartea eratzea.

Bat gatoz balio horiekin, eta erantzukizun moduan eransten ditugu geure enpresa-ondarean, honako hauexen osagarri: gure esperientzia, gure jakintza eta oso profesionala eta kualifikatua den kudeaketa, pertsonen ongizatea zein osasuna eta gure gizartearen aurrerapena lortzeko.

Printzipio horien arabera, Kudeaketarako Politika hau honako printzipio orokor hauen inguruan egituratzen da:

- Behar besteko konpromisoa hartzea, segurtasunaren zein osasunaren, ingurumenaren eta elikaduraren segurtasunaren arloan ezarri beharreko legeria betetzeko, baita enpresak borondatez edo alderdi interesdunen ondorioz bere gain hartu ditzakeen eskakizunak ere.
- Kalitateko zerbitzu moduan dugun proiektzioa sendotzea, gure bezeroak gustura daudela bermatzeko, gure produktu eta zerbitzuen kalitatearekin nahiz haien aurreikuspenen araberrako erantzun globalarekin, prezio lehiakorra eskaintzen dugula kontuan hartuta.
- Gure aukeren araberrako konpromisoa hartzea eta benetako lankidetzatza garatzea, Nazio Batuen Erakundeko 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuetan proposatutako erronkak gauzatzeko, zorrottasunez, zehaztasunez eta asmo handiz garatzen dugun jardueran dutelako eragina.
- Behar besteko ahalegina egitea, GB Korporazioko erakunde eta zerbitzuetan lan egiten duten guztiek politika hau ezagutu dezaten, baita geure bezeroen bidez zer inguruetan dihardugun ere, zabaltasunez partekatutako helburuak eta ikuspegiak ditugula jakinda.

Batez ere, GB Korporazioak honako konpromiso hau hartzen du, erakundeko pertsona guztien partaidetzaz:

1. Aginte Talde Estrategikoarekin lotutako helburuak urtero zehaztea, ezartzea eta ebaluatzea.
2. Antzemandako ingurumen-faktoreak ebaluatzea eta kontrolatzea, baita baliabide energetikoen, ontzien eta bilgarrien erabilera eraginkorra ere.
3. Geure bezeroekin laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko jarduerak koordinatzea.
4. Haien erantzukizunak kudeatzeko arlo guztietan langileen integrazioa, komunikazioa eta informazioa sustatzea.
5. Prebentziorako dela argi dagoen ikuspegi ezartzea, istripurik ez egoteko, osasunak txarrera ez egiteko, ez erratzeko eta ez kutsatzeko.
6. Giza eskubideen ikuspegi dinamikorantz eta laneko giroaren hobekuntzarantz Aurrera egitea, integratzailea eta errespetuzkoa den gizarterantz joateko.

Azaldutako guztiaren ondorioz, honako honexen inguruko erantzukizuna hartzen du zuzendaritzak:

1. Politika hau alderdi interesdun guztien esku jartzea, erakundeko maila guztietan ezartzea eta eustea eta zabalkunderako dituen komunikazio-bideetan argitaratzea.
2. Langileentzako prestakuntza-planak garatzea, prestatuago nahiz motibatuago egon daitezen eta, horrela, lan, gizarte zein ingurumen arloarekin erabat bat datorren lana behar den moduan garatu dezaten.
3. Erakundeari jakinaraztea zeinen garrantzitsua den bezeroen eskakizunak eta legezko nahizarauzko eskakizunak betetzea.

Beraz, beharrezkoa da GB Korporazioan lan egiten dugun guztiok hemen azaldutako politikarekin bat egitea eta, horren ondorioz, geure erantzukizunen esparruan, politika horren ezarpenean, garapenean nahiz hobekuntzan bete-betean parte hartzea.

Mungian, 2022eko otsailaren 17an.



Fernando Gazpio
Zuzendari nagusia
GB Corporación